# Mandragoran mobida bat

Xabier Ansa Zeberio

*Vía muy recomendable. Integra en libre; no comporta ningún paso de extremada dificultad, aunque sí bastantes alrededor del quinto grado. No es muy vertical por lo que deja de ser mantenida. Bastantes bavaresas, alguna fisura por empotramiento así como alguna travesía delicada en placa. Roca buena en general excepto en un par de largos (quinto y décimo). En el cuarto largo una clavija conduce a un embarque. Suficientemente equipada: reuniones y pasos claves (normalmente con buriles). Material: cintas express y excéntricos medianos y grandes. Horario: de 5 a 6 horas. Está situada a la derecha de la Anglada.*




**Josetxo: Hik hainbeste maite dituan mendiekin elkartzen uzten ez diaten horri eskainia. Lasai, mendiek betiko lekuan jarraituko bait ditek.**

... ohe goz
Atzean ·
berriz m
okindegi
nak hart

Kontu
kontrola
de adorn
ere baki

Ordes
gora ab
izerdi t
gogor j
itzala i
Fraucata
Gaur azk
era egin
Txabola
dian esi
erreza c
hasten
berean,
eta orai
galdu ba
egin da
eta ber
nora d
datoz;

Ondo
txikia d



ORDESA. La Fraucata. Vía Mandragora.

da, harria oso apurtua baitago. Hau bukatu eta gero bloke haundi baten gainean eserita minutu lasai batzuk. Zein polita den Gallineroaren espoloia; ea bihar handik hori bera esaten dugun Fraukataz.

Orduak aurrera doaz eta plaka bat eta diedro baterik igo ondoren, igoera honen zatirik ederrenera iristen gara: eskuinean desplomeek eta ezkerrean zimurturarik gabeko izugarrizko plaka lehun eta sendoek alaitzen dute zuzenean gora atera behar dugun fisuraren itxura. Eskalada honen zatirik zailena da, baina era berean zatirik politena dela ere egia galanta da. Lehenbizi gorputza barruan sartuta, eta gero delako fisura hori babaresa zoragarri batetan azaltzen da.

Azken zatia ez da zaila baina bai kontuz ibili beharrekoa, hemen ere harria nahiko hautsia baitago.

Orain bai heldu gara.

Goian izarrak azaltzen hasiak dira tarteka etortzen diren hodei batzuren artean, eta behean berriz lehen asmoa eta orain errealitate bihurtu den zerbait. Hemen orain gustora, beste askotan bezala lasai eserita, zerbait utzi baina asko hartu dugunaren pentsamenduarekin, bihar beste zerbait hartuko dugulakoan.

Partaideak: Mariano Mateos, Joxe Luis Larrarte (Kotteli), Josetxo Rodriguez eta Xabier Ansa; 1982.ko irailaren azkenaldeko egun batetan.

«MANDRAGORA». La Fraucata. Ordesa. 340 m. M.D. 5-6 ordu.

LA RESEÑA SIGUE
MUY BIEN EL ITINERARIO
Y CONTANDO LARGOS